



Astekaria



elgoi



Kaletarrak baserritar

IRAKASLE

ELKARTEA

ZEZENBIDE

San Frantzisko 43 • ☎ 74 27 20 • ELGOIBAR



auto-eskola

*lizena ematean
%10eko beherapena
Gazte Txartelarekin*



GARAY



HARATEGIA
URDAITEGIA

San Frantzisko 9 - Tel. 74 13 92 - ELGOIBAR



UZTAILEKO ESKAINTZA BEREZIA

Primerako xerra RABADILLA 1.490 pta/Kg	Primerako xerra BABILLA etab... 1.390 pta/Kg	Aurreko solomoko TXULETA 1.390 pta/Kg	Atzeko solomoko TXULETA 1.490 pta/Kg
HEGALAK SAIHESKIAK 590 pta/Kg	GISATZEKO LEPOA 790 pta/Kg	ZANKARROIA, KARRILERAK,... 890 pta/Kg	2. mailako HARAGI-XERRA 1.090 pta/Kg
Hezur gabeko FALDA EGOSIA-GISATUA 690 pta/Kg	890 pta/Kg KROKETAK <u>BEXAMELAREKIN</u> JAMON YORK CHOPPED ETA GAZTA ARRAULTZAK 990 pta/Kg		Primerako xerra KONTRA-SORBALDA 1.290 pta/Kg
TXAHAL BULARRA 490 pta/Kg	1.490 pta/Kg MINGAINA		ROOSBEEFa ENTRECOTa 1.790 pta/Kg
ETXEAN EGINDAKO JAKIAK:			
- SAN JAKOBOAK		- INDIOILAR ROLLITOAk	
- PIPAR BETEAK		- TRIPAKIAK TOMATETAN	
- ALBONDIGAK		- HARAGI GISATUA	
- MINGAIN GISATUA		- PINTXO MORUNOAK	

elgoiBARREN
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

PUBLIZTATEA:

Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldeggi, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzi Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.700 ale


LEGE GORDAILUA: SS-
1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoiBARRENeK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



kultura fundazioak
Fundación kultura



Kutsadurak Elgoibarren

Zoritxarrez, asko eta ezberdinak diragure herriak ezagutzen dituen kutsadura motak. Elgoibarko hainbat eremu natural ez dira, gaur egun, hain naturalak gizakiaren erruz. Honez aparte, azken urteotan herri honek kapitalismo gogorraren krisiak dakartzan ondorioak ezagutu ditu: jendeak kanpora lan bila atera beharra; herriko senideen ahalmen ekonomikoaren jaitsiera, langabezia, hainbat komertziok atek itxi behar etab.

Baina hauek ez dira ezagutu ditugun kutsadura mota bakarrak. Testu hau irakurtzen ari zareten guztiak gogoan izango duzue drogen arazoa, berau izan baita gure herrian min gehien egin duen kutsadura.

Idatzi hau iritzi artikulua bat besterik ez da eta ez dauka lekzio batek jendearengan izan dezakeen helburu didaktikoa lortzeko asmorik. Honekin bilatzen dudana gauza bakarra, testu hau irakurtzen duzuen herriarroi begiak piska bat zabaldu araztea.

Azkenengo hamarkadetan gure gizartean heroina, kokaina... eta orain urte batzuek diseinuko dorgak sartu dira. Herri honek droga asko eta ezberdinak ezagutu ditu (ondorioak guztiontzat ezagunak dira) baina hau ez da nik oraingoan erabiliko dudana ikuspuntua. Ez noa droga bakoitzak dakarrena aztertzeraz, ez, drogak nola erabili daitezkeen ikuspuntu jakin batetik aztertzeraz baizik (nire ikuspuntutik, esaterako).

Antonio Escohotado kazetari eta soziologo ospetsuak eta Pedro Ibarra EHUKo irakas-



lea eta "El Mundo del País Vasco" egunkariko kontseilu editorialeko kideak, drogen inguruan Bilbon eman zuten hitzaldi batean azaldutako iritziez baliatuko naiz esaten dudana isladatzeko.

Bi gizon hauen esanetan Holandan droga mota guztien kontsumorik altuena dute baina sustantzia hauei loturiko adikzio portzentaia, munduko baxuena da. Estatu espainiarrean, zortzi milioi dira kañamo kontsumitzaileak. Datu hau zenbait droga legalizatzeke aitzakia ona izan daiteke (Holandaren adibidea jarraituz) edo besterik ez bada, eztabaidarako abiapuntua. Legalizazioarekin drogen kalitatea hobea izango litzateke, osasunaren mesederako. Adikzioak behera egingo luke. Baina interesak, noski, hor daude.

Hau guztia alde batera utziz, nahiz eta zerikusi handia izan, gure herrira bueltatuko naiz. Ez dezagun pentsa drogen arazoa gazteon arazoa bakarrik denik. Elgoibarren beti onartu izan da txikitero onaren irudia, nahiz eta batzuk egunero edandako kopuruarekin pasatu. Norik ez du entzun noiz edo noiz "zein tipo jatorra, beti alai, ardo batzuk bakarrik edan eta gero" eta antzerako baieztapenen bat. Ireki ditzagun begiak drogak asko eta asko baitira eta herri honetan (modu batera edo bestera) guztioi heldu zaigu kutsadura mota hau. Laga dezagun hipokresia alde batera eta egin diezaiogun aurre arazoari. Denok!

Javi León

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Leku-Ederren zegatik ez dituzte txakurrik sartzen lagatzen?

Sarjentoarekin harremanetan jarri gara eta 94ko Ordenantzetan txakurren ibilera arautzen duen legea onartu zela adierazi digu. Honen arabera txakurrak parkean ibil daitezke baina lotuta baldin badoaz bakarrik. Berdeguneetan, berriz, ezin dira sartu, ez txakurrak eta ez pertsonak ere. Amaitzeko, haurrak ibiltzen diren tokietan horrelako erabakiak hartzea ezinbestekoa dela esan digu.



KEXAK

- **Artetxe** kaleko herritar batzuk etorri dira euren inguruan **iturririk ez dagoela** esanez. Bai haurrek eta bai nagusiek iturria nahi dutela adierazi digute eta eskari hau luzatu nahi diote Udalari.

- Ikastolako 5. mailako ikasleek Atxutxiamaikako Begirale taldeak etxerako banatzen dituen **propoganda orriak gaztelaniaz eta euskaraz** datozela salatu nahi dute. Denek euskaraz jakinda ez dute ulertzen zergatik banatzen dituzten bi hizkuntzetan.

- **Leku-Ederren** bizi den emakume bat etorri da etxe bien artean dagoen plazoletan **zakarrontzirik ez dagoela** salatzen. Gainera, Gabonetatik argirik gabe daudela adierazi digu. Zergatik?

ESKUTITZAK

"Asti" lagunari

Joan den asteko eskutitzari honako zati hau falta zitzaion:

Zure irribarrearekin ezkutatu nahi zenuen malko hori / perla liluragarri bat bezala jaso nuen / udaberri bero hartan, lagun maitagarri / zure agurra itsashaizea bezala sentitu nuen.

Ana Lidia, Elena, Alberto, Rebi, Pablo, Mamen, Guiller, Izaskun, Txomin, Amaia eta Kurutz

"Gera daitezela etxean, sukaldea da beraien tokia!"

1 996ko ekainak 30. Ez da, ez, orain dela ehun urte entzundako esaldia. Garai hartakoa balitz, gaitzerdi. Baina, oraindik orain badirudi horrenbeste azpimarratzen den berdinstunaren bidea uste baino ustelagoa dagoela.

Joan den egunean komunikabideetan ikusi eta irakurritakoaren aurrean lotsa sentitu nuen. Tradizioaren izenean, gizona emakume soldaduak iraindu zituzten. Emakumeen artean ere, kontrakoak gehiago ziren aldekoak baino.

"- Ni orain urte asko kantinera izan nintzen. Hori da irundar

emakume batek izan dezakeen ohorerik handiena!"

Historiaren arabera, soldaduak sartu ziren Irunen, gizona bezala. Historiaren arabera kantinerarik ez zegoen. Halere, historia aldatu egin zen eta alardea "edertzeko" asmoz edo, herriko neskarik politenei aukera eman zitzaientzaldai gainean ibiltzeko. Hori bai ohore handia!

Ez noa ni zer dagoen ondo eta zer gaizki esatera.

Urte asko igaro dira hainbat emakume lantegian erre zirenetik euren eskubideak defendatzearen. Martxoaren 8a urtero ospatzen da ordudunik. Zertarako?

Joan den igandean Irunen gertatutakoa ikusita, ez da ezer aldatu. Ezer gutxi aldatu da behintzat. Zoritxarrez. Berdintasuna ere erreferendumean erabakitzen al da?

T.A.

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





UJANGUREN

Aste honetako erretratu **Maite Vallejok** lagatakoa da. Erretratu Altzolan aterata dago, bertako bainuetxean. Argazkia 1933. urtean ateratakoa da, eta gaur egun sinestea zaila den arren, sasoi hartan demaseko mugimendua egoten zen bainuetxean.

Maitek esan digunez kristoren bazkariak egiten

ziren bertan eta kanpotik jende asko extortzen omen zen.

Amaitzeko, Elgoibarko eta inguruko neska gazteek lana bainuetxean topatzen zutela kontatu digu. Erretratuan, beste batzuen artean, bi elgoibartar ikus ditzakegu:



Benedicta Gorostiza (†) eta **M. Cruz Arriaga de Vallejo** (†).

 <p>karkizano San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49</p>	 <p><i>Arrieta</i> San Bartolome 18 Tel. 74 08 49</p>
--	--

<p>Cordon, Vilarchao, c.b. DEKORAZIOA</p> <hr/> <p>MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.</p> <p>San Roke , 7 behe. Tel.74 28 74 - 74 05 70</p>
--

Zelaiien tokian, ortuak

Berrogeita hamar ortu baino gehiago daude Elgoibarren han-hemenka sakabanatuak. Kaletarrak baserritar bihurtzen dira ordu batzuez. Etxean bertan hazitako porrua, letxuga, tipula, tomatea edo azelga platerean edukitzeak abantaila handia suposatzen du. Abarkak jantzi, atxurra hartu eta lurraren sentazioa oin azpian izateak badu ikutu berezirik.



Eugenio Lariz, Manuel Lazkano eta Jose Garaialde gustura baino gusturago aritzen dira euren ortuetan.

Arostegi edo Palazio baserriko terrenoetan dute euren ortua Eugenio Lariz eta Manuel Lazkanok. Lurra Gloria Irustarena da baina orain 10 urte, Eugenio jubilatu zenean, Gloriak lurrak eskaini zizkion, “garbi mantentzearen, debalde”. Duela urte batzuk belaunian desgasteakin hasi zen Eugenio, “orduan, Manuelekin ein naban tratua. Nik zimaurra pagatzen dot eta berak eitxen dau ortuan lan. Erdibana dakau dana”. Tomatea, porrua, kipula, patata, babak... denetik izaten da ortu txiki hauetan, denetik eta ona gainera. “Halere, geriza gehixei dao gure ortuan, arbola asko dao eta. Horretxek batzuetan eitxeio kalte landariari”, kontatu digu Manuelek. Barazkiez gain, okarana, madaria eta sagarra ere badute Palazio aldean.

Uda, sasoirik onena

Manuelek hiru-lau ordu sartzen ditu egunero ortuan gaur egun. Duela 10 urte, Eugenio lehen aldiz terreno haietara joan zenean, hutsetik hasi behar izan zen, “dana sasixa zan. Garbitxu, atxurru eta egokitxu biharra zaon haura zeoze ein nahi bazan”. Makina txiki bat ere erosi zuen Bergaran, rotabadora bat, “100.000 pta. eskura pagauta”.

Orain da sasoirik

emankorrena, uda partea. Aste hauetan tomatea lotzen ari da Manuel, “landaria asko hazten da, luzatu eitxen da eta lokarrixakin ez badiozu eusten, dana behera dixe, okertu eitxen da”. Atera ere, behar baino gehiago ateratzen dute. Eugeniok, “sobratzen jatana seme-alaben artian repartitzen dot”. Manuelek ere lehengo etxerako baina hortik gorakoa, “saldu ein bihar”. Behin edo behin sasi artera bota behar izan dute, ezin banatuta ibili direlako.

Noizean behin sulfatoa bota behar izaten dute ortura, “gorriña ez sortzeko, landarian gaixua”. Ostantzean, mamorruek kontra “kare bizixa da onena”.

Jaio aurretik ortuan

Biak baserritarrak dira jaiotzez, bai Manuel bai eta Eugenio ere. Eugeniok ondo baino hobeto azaldu digunez, “ni, bederatzi hilabete jaixo baino lehenotikan ortuan ibilitxakua naiz, aman tripan nauala”. Orain, berriz, kalean bizi diren arren, “guk geuk ateratako produktua jan nahi izaten dou. Seguridade haundixa emateizu horrek”, esan digu Manuelek. “Neri tomatia gustatzen jata arbolan bertan gorritxu dadila”, adierazi digu Eugeniok.

“Pabuak, antzarrak eta kapoiak” eduki zituz-

ten garai batean baina “egunero jun bihar danez animalixak badaude, kendu ein gendun”. Erleak ere eduki zituzten, “30 urtian egon zian. Ezti mordo bat eitxen zaben baina azkenian berroasis gaixuakin hil zian”.

Burua, ipurdia baino beherago

Abarkak jantzi eta gustura baino gusturago aritzen da Manuel, “30 urte daruat nik ortuekin. Lehen Plaza Txikixan nakazen, Leku-Eder parkia dauan tokixan. Orduan ere, lurra ez zan neria baina han lan eitxiarren ematen zien generua jabiek”. Eugeniok ere badu esperientziarik eta hara hona bota digun aholkua; “ortuan lana ondo eingo bada, egunian hiru ordu, burua ipurdixa baino behero erabili bihar da”. Eugeniok berak, bazkal osteko siesta eta gero, “hori sagraua da”, ortura egiten du bisita, “han bata



Tomate landarea sokaz lotu behar da ez okertzeko. Beheko argazkian tomate hazia ematen duen landarea.

bestiak txatxaran egoten gero, tontousain mordo bat esan, barre ein eta arratsalde pasan”.

Jardin partikularra

Jose Garaialdek 73 urte ditu eta orain lau urte ekin zion ortuan ibiltzeari. Jubilatu zenean, bizilagun batek eskaini zion San Lorentzon duen lur saila. Josek behar bezala atondu eta txukundu zuen inguru

guztia eta gaur egun izugarrizko txoko dotorea dauka, “nere jardin partikularra”. Ondo baino hobeto esan daiteke, gainera, jardina dela. Izan ere, Joserren emazteak lore ugari hazten baititu bertan, “hasieran berak ez zaban ortuan hasterikan nahi, lana zala eta lehen ere nahikua einda nauala. Oin, bera da txarrena”. Lan asko egin behar izan zuen emaitza ikusi arte, “jundanekeo 25 urtian ez zan inor sartu. Oin poliki ikusten da”. Etxerako baino gehiago jasotzen badu, bizilagunari ematen dio.

Jose ez da kalean ibiltzekoa, “egunero, goiz eta atzalde, etortzen naiz, baitxa doemeketan ere askotan”. Lehen tailarrian beste ordu sartzen ditu orain ortuan Josek, “hau gustukoa, haura derrigo-

rra. Horra aldia”. Negozio bila ez dabil Jose, “etxerako adina. Ni relajatzera etortzen naiz hona. Ortuan ibili eta nekatzen naizenian, kerizpian jarri. Tran-kil”.

Urarentzat, bainera

Ura jasotzeko era benetan bitxia du Josek, “errekato bat dao aldamenian. Hortik ura jaso eta bainera baten eukitzen dou. Handik, mangera batekin ondo baino hobeto konpontzen naiz”. Josek eskuz lantzen du dena, “asmau biharrik ez nakan, gaztetan baserrixan ibilitxakua naiz eta. Lo uniko, gorputza jarri eta ohitxu ein bihar”. Lan nekeza izan arren, “neku ezkerro laga eitxen dozu”.


Ondo jantzita ibili behar omen da ortuan, “batez ere oinak. Bestela laprast egin eta arriskua dao min hartzeko”. Lurra mimatu egin behar da, “pertsonak bezela, ondo jatia gustatzen jako eta egarri darian asetu arte edatia”.

Kaletik onena eta baseritik ere beste horrenbeste, “kalian egoki bizi naiz eta ortua ere hurrian dakat”. Errenka hasi edo ahuldu arte, ortuan jarraitzeko asmoa du Josek. Halere, “pertsoniak ejerziziuua eitxen ez badau atrofiau eitxen da. Ortuari izerditxu eitxen da asko eta gero dutxia hartutakuan oso relajauta sentitzen. Oso ona da”.




Josek errekatxo batek jasotako ura baineran gordetzen du eta gero mangera erabiltzen ureztazeko.

Zer deritzozu Irungo alardean gertatu denari?



MONICA FERNANDEZ
16 urte, ikaslea

Neskek ere eskubidia dake parte hartzeko. Tradizituak aldatu egin bihar dia. Tore-roen kasuan bezela, beti gizonezkuak ibili diren arren, neskek eskubidea dute.



JUAN LUIS GARATE
37 urte, elektronikoa

Ohitura ohitura da baina dena dela deretxo guztia dake eta ohitura hori aldatu beharko litzake. Jendearen erreakzioa ez da ulergaitza baina ez da normala ere.



ELENA LOPEZ
18 urte, ikaslea

Hala nahi badute, pertsona guztien eskubidea da edozein tokitan parte hartzea. Soldadutza ere egin nahi badu emakumeren batek, eskubidea dauka. Alardearen kasuan gauza bera.



GERARDO URIBE
57 urte

Neretzako andra edo gizona izan berdin da. Historiak bere tokixa daka baina eboluzio baten gaude eta kanbixua bihar da, batez ere jendiak eskatu eitzen dabanian.



CARMEN GONZALEZ
43 urte, etxekoandrea

Diskriminazioa iruditzen zait. Elgoibarren ere lehen tanborradan gizonezkoek bakarrik hartzen zuten parte eta gaur egun oso normala da emakumeak ikustea. Eskubidea denona da.



LUIS MIGUEL ARIAS
29 urte, kimikoa

Ez zait gaizki iruditzen emakumeek ere parte hartzea. Ohiturak errespetatu egin behar dira baina aldatu ere egin daitezke; aurre-rausoa eman behar dira beti.


HERRI-GAİN
ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

okindegia eta gozotegia

FOTERO

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR



Atxutxiamaika Begirale Taldearen Udaleku Irekiak martxan

Guztira 140 haurrek hartuko dute parte aurten Atxutxiamaika Begirale taldeak antolatutako Udaleku Irekiak egitasmoan. Eskolaurrekoak ezezik, 1. eta 2. mailako haurrak ere hasita daude eta astelehenean OHoko 3., 4. eta 5. mailakoen txanda izango da. Aurtengo

berrikuntzen artean, hilaren 10ean egingo duten "San Fermin Txiki" jaia da nabarmenena. Sorpresa izango denez, arduradunek ez digute azaldu zertan datzan jaia. Goian, begiraleak eta eskolaurreko haur guztiak, argazkirako formal-formal eserita.



Hankaluzeak, tiririteroak, goma-espumazko panpinak, kale-animatzaileak batetik, eta jolaserako gogo izugarria zuten haur eta nagusiak bestetik, kalejira luze baten ondoren Plaza Handian elkartu ziren igande goizean Hankapalu Eguna ospatzeko. Kilometroak 96 ekitaldien barruan burutu zen, eta han ikusi ahal izan genituen Beder eta Sei maskotak oroigarriak banatzen batean eta bestean. Mauxitxa txaranga eta Atxutxiamaikako hiru hankapalu izan ziren elgoibartarren ordezkariak. Arratsaldean Sebastopoleko tiririteroak aritu ziren haurrak ondo pasatzeko ahaleginetan, ekilibrio jolasak eginez, pailazo-usainetan arituaz eta arratsaldea umore saltsan pasatuz.

Def Con Dos eta Gozategi anaiak San Bartolomeetan

Udaleko Kultura Batzordeak, kultur zerbitzuak prestatutako San Bartolome jaietako egitarauari onespena eman zion joan den astelehenean egin zuten bileran. Jaietako egitarauaren zirriborroan agertzen denez, jaiak honela izango dira aurten: abuztuaren 19, 20, 21 eta 22an aire libreko zinea Plaza Handian gaueko 11etatik aurrera. Abuztuaren 23a ostirala, bezpera izango da; 24 larunbata, San Bartolome eguna; igandea, abuztuak 25, Jubilatua eta Umeen eguna; 26 astelehena, Txiki eguna, 27, 28, 29 eta 30 atsedean egunak izango dira. Abuztuko azken zapatuan, hilaren 31n, Baserritarraren eguna ospatuko da eta irailaren 1ean, domeka, azken jai eguna. Egunez egun egitarauari begirata, antolatu diren ekitaldiak urterokoan antzekoak dira. Aipagarria da aurten ez dagoela Gazteen egunik, printzipioz abuztuaren 29an ospatu beharko litzatekeena. Egun honetan ekitaldi bakarra egongo da: gaueko 11etan *Def Con Dos* taldearen kontzertua Madalako parkean. *Gozategi* anaiak "Emostazu musutxue" eta antzerako doinu ezagunak abestuko dituzte Madalan, abuztuaren 23ko gauean. 24an, berriz, *Maixa eta Itziar* trikitilarien jarduna izango da eta Umeen egunetik Txiki Eguna bitartean *Zokoan* taldearekin kontzertua, gaupasa eta txokolatada goizaldeko 5,30etan. Sokamuturra hiru egunetan egongo da: abuztuak 25, 26 eta irailak 1.

Nafarroara txangoa

Elgoibarko PNV/EAJ alderdiak, urtero egin ohi duen bezala, txango bat antolatu du datorren zapatarako, hilak 13. Irteera Nafarroara izango da eta joan nahi duten guztiak Batzokira dei dezakete, 74 27 44 zenbakira.

■ Intsumisioari buruzko argazki lehiaketa

Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak "Gazteak eta Intsumisioa" gaiari buruzko argazki lehiaketa antolatu du. 19 eta 35 urte bitarteko edozein gaztek har dezake parte. Bi modalitate egongo dira: librea bata eta koloretan edo zuri-beltzean bestea. Azken honetan lanak 30x40 cm-ko kartulinazko euskarrian aurkeztu beharko dira. Argazkiak Arrasateko Udaletxean laga behar dira urriaren 11rarteko epearen barruan. Argibideak jasotzeko Arrasateko Udaletxera zuzendu.

■ "Aiten Etxea"ren legalizaio ekitaldia

Banaturako edo dibortziazatutako gizonen "Aiten Etxea" delako elkarteak sortu dute Euskal Herrian. Elkarteak aurkezteko asmotan, ekitaldi berezia antolatu da Ermuan, Gure Etxea edifizioan, (Ongarai kalea z/g). Hilaren 7an, igandea, eguerdiko 12,30etan hasiko da saioa. Interesatu guztiei bertara joateko gonbitea luzatu nahi diete antolatzaileek. Informazio gehiago nahi izanez gero 908 67 09

■ Liburutegiko ordutegi berria uda garairako

Udal Liburutegiak ordutegia aldatu du udara begira. Uztailaren 1etik irailaren 7ra arte goizeko 8etatik eguerdiko 2ak arte egongo da zabalik. Arratsaldetan itxita egongo da.

■ Bidaia agentzien kontratazioak nola egin

Elgoibarko Kontsumo Bulegoak bidaia konbinatua delakoak kontratatzerako orduan kontuan hartu beharreko xehetasunen berri ematen duen inprimaki bat banatu du etxez etxe. Zalantzarik edukiz gero, Elgoibarko OMIC-a goizez irekita egoten da. Kontsumo Bulegoa Merkatu Plazan dago kokatua eta telefonoa zenbakia 74 30 88a da.



San Bartolome ikastolako 5. eta 6. mailako 105 ikasle eta bost irakasle Zadorrako urtegiaren dagoen Zuazako irlan hiru egun pasatzen egon dira. Jakin dugunez, bapo ibili dira bai ikasleak bai eta irakasleak ere aisialdiko ekintzak eta uretako kirolak egiten, hala nola, piraguismoa, wind-surf-a, arrauna eta pedalak.



AZKUE

50 urte bete dituzten elgoibartarrak bazkari baten bueltan elkartu ziren joan den ekainaren 15ean. 74 lagun batu ziren, elkarrekin hitz egin, joan direnak gogoratu eta azken finean, egun polit bat igarotzeko asmoarekin. Meza ostean erretratua atera zuten Bolatokiko parkean eta Herri Gain-en bapo bazkaldu eta gero dantzaldia izan zuten iluntzerarte. Ederki pasatu zuten, bi urte barru berriro elkartzeko asmoa dutela adierazi digute.

■ Odol ateraldia

Datorren ostiralean, hilak 12, odola aterako zaie aurrez deitutako guztiei arratsaldeko 6,30etatik aurrera P. M. urruzuno 8ko egoitzan. Odol emaleen elkarteak herritar guztiak odola ematera animatu nahi ditu, odola ematea beharrezkoa baita biziak salbatzeko.

■ Gelatxorekin dantzaldia

Uztail osoan zehar, Gelatxo orkestarekin dantzaldia izango da domekero Plazako arkupeetan. Arratsaldeko 6,30etan hasiko da dantzaldia. Lehen saioa joan den igandean, ekainak 30, izan zen eta Plaza Handia lepo egoten omen da bai Elgoibarko bai eta kanpotik etorritako jubilatuez.



Elustondo, Idoeta, Gasteain eta Arregi izan dira *Lagunak* txapelketako irabazleak

Pasa den ostiralean amaitu zen *Lagunak* Pilota Eskolak urtero antolatzen duen herriko neska-mutikoen eskuzko txapelketa. Seigarren edizio honetan jokatu diren hainbat partidutan jokaldi politik ikusi ahal izan dira. Txapelketa hasieran frontoiko zoluaren egoerak eragin negatiboa izan zuen jokoan, labaintzeko arriskua handia baitzen. Udalak frontoiko lurra leundu zuen eta erortzeko arriskua ekidin.

Ostiralean lau final jokatu ziren. Haurren kategorian Unai Etxeberria eta Igor Arregi izan ziren aurrez aurre eta azkenak irabazi

zuen 18 eta 15. Segidan, alebinetan Aitor Idoeta Eneko Loiolari nagusitu zitzaion. Benjaminetan lehen aldiz, neska batek mutil baten aurka jokatu zuen finala. Mireia Hidobrogogor aritu zen Unai Gasteainen kontra baina azkenean, nahiz eta partidu osoan antzera xamar aritu, merezimenduz irabazi zuen Gasteianek, 18 eta 8 hain zuzen. Infantilen partidua jokatu zen bukaeran. Mikel Elustondo eta Ivan Rojoren arteko norgehiagokan Elustondo nagusitu zen 18 eta 14. Finalen ostean 30 bat lagunak dominak eta kopak jaso zituzten sari modura.



Txinoek agur esan digute. Erreminta Makinaren Institutuan formazio ikastaroa egiten egon den txinar ikasle taldea euren jaioterrira itzuli da. Hiru hilabetetan zehar erreminta makinarekin lotutako teknika berriak ikasi dituzte, gero, Txinako lantokietan erabiltzeko. Argazkian 16 ikasleak ditugu, ikastetxeko arduradunak eta AFMko presidentea den Alberto Ortueta.

■ San Ferminak Kultur Etxean ikusteko aukera

Hilaren 7an San Fermin jaiak hasten direla eta, Kultur Zerbitzuak Kultur Etxeko hitzaldi gelan entzierroak emango ditu pantaila handian. Astelehenetik aurrera, goizeko 8etan puntuan, nahi duenak entzierroa ikusteko aukera izango du Kultur Etxean.

■ Asanblada herrikoia HBk antolatuta

Elgoibarko Herri Batasunak herritarrei zuzenduriko asanbladarako deialdia luza-tu du datorren asteazkenerako, hilak 10. Kimetz elkartean izango den bileran lur industrialaren egoera aztertuko da: industrigune publiko zein pribatuak, kortaren proiektua eta honen eragina. Honez gain, Sigmako industrigunearen etorkizuna ere aztertuko da eta PNVk gai honen inguruan duen jarrera. Bilera arratsaldeko 8etan hasiko da.

■ Deba Beheko gida

DEBEGESako arduradunek Deba Beheko Aisialdi eta Turismoari buruzko liburuska arukezpena egin zuten joan den ostiralean. Aisialdirako eta turismorako baliabideen berri ematen du gidak, Debege-sako ordezkarien hitzetan “bailaran bizi direnentzat bai eta kanpotarrentzat ere Deba Beheko eskualdea eza-gutzeko tresna erabilgarria delarik”. Era berean, “gure bailara inizatiba pribatuarentzat turismo-leku erakar-garria izan daitekeela erakutsi nahi dugu liburuska honen bidez”. Honekin batera beste gida bat kaleratuko dute datozen egunotan, “Deba Behea, ezagutu ezazu” izenburukoa. Lehen gida bailarako biztanleei zuzendua dago batez ere, eta 10.000 ale kaleratu dituzte. Bigarren gidaren 8.000 ale kaleratu dira eta kanpotar-rengan pentsatuz eginga dago. Gida hauek kioskoetan eta turismo bule-goetan eskuratu ahal izango dira doan. Gida hauen ale kopuru bat FITUR eta Expovacaciones bezalako azoketan banatuko da.

Abel Irizar:

"Autokonpromezuan oinarritzen da Gurean Bai"

Elgoibartarren %94a euskara indartzearen alde dago. Hala dio, Siadecok egindako ikerketa batek. Urtarrilaren 27an, Elgoibarko Izarrak bultzatuta eta Udalak babestuta, Gurean Bai hitzarmena sinatu

zuten herriko 51 entitatek. Hitzarmenaren arabera, entitate hauek guztiak euskararen erabilera bultzatzeko konpromezua hartzen dute. Abel Irizar, 27 urteko gaztea da Gurean Bai-ko teknikaria.

- Siadecoren ikerketan dago Gurean Bai-ren jatorria.


- Bai. Udalaren eskariz Siadecok ikerketa bat egin zaban Elgoibarren eta azterketa horretan ikusten zan %70 euskalduna izanda, %32xak baino ez zabala erabiltzen. Erdixak ere ez. Horrez gain, hemen elkartietan elkartzeko izugarritzko ohitxuria dau. Hor ikusi zan plangintza bat sortzeko biharra, elkartiak eta erabilera uztartuko zitxuna.

- Zer da Gurean Bai?

- Siadeco-k ikusi zaban biharra Elgoibarko Izarrak jaso zaban eta lau lagun martxan jarri zian proiektu bat idazteko. Helburua zan Elgoibarko elkarte eta erakundietan euskararen erabilera indartzeko plangintza egitia. Proiektua prest zauanian, Udalian aurkeztu zan, Udalaren esku geratu zan finantziazioa eta ondoren, elkartieri aurkeztu jakuen.

- Zer eskatzen zaie?

- Autokonpromezua. Borondatez konpromezua hartzen dabe euren elkartian euskara indartzeko. Esate baterako, gaztelera hutsez iristen zaizkien idatzieri seilua jo eta itzu-



"Kirolaren, konserbatorioaren eta eskola arteko jokuen egoera oso kaskarra da"

li egin behar dituzte, gaztelerez ezezik, euskaraz ere idatzizak jaso nahi ditxuela esanaz. Beraien idatziak euskaraz ere egin behar dituzte, nik itzuli egiten diuet laguntza bihar badabe...

- Urtarrilaren 27tik bost hilabete pasa dira.

- Bai eta ordutik nahiko gauza ein dia. Lehenengo, elkarte bakoitzari eskatu jakon euskara arduradun bat izendatzia. Arduradun hori da nere kontaktua eta bera da bere elkartian euskara indartzeko motibaziua sortu bihar

dabana. Lehenengo helburua zan elkarte bakoitzaren diagnosi bat egitia, elkarte bakoitzaren egoera linguistikua aztertzea. "Radiografia" bat atera genion elkarte bakoitzari.

- Ezagutza eta erabilera-ri dagokionean?

- Bai, bixak euki ditxugu kontuan. Ezagutza aldetik maila ona ikusi da baina erabilera ez da hain positibua.

- Non piztu da argi gorria?

- Txosten bat ein naban hasierako datuekin, egoera orokorra jasoz.

Kirola da, batez ere, oso egoera txarrian dauana. Kirol ekintza gehixenak erderaz eitxen dia, baitxa eskola arteko jokuak ere. Eta euskararen etorkizunerako klabe inportantia da jende asko eta adin guztietakoa dabilelako eta gainera gustura egiten den ekintza dalako eta hor barneratzen da hizkuntza. Kulturari, konserbatorixua da egoerarik kaskarra dakana.

- Jarraipen Baztordea ere badago.


- Bai, Udal Euskara Baztordeko hiru lagun daude, alderdi bakoitzetik bana, Elgoibarko Izarrako beste hiru, Euskara Zerbitzuko Teknikaria eta ni neu. Hilian behin elkartzen gera eta funtzia, hitzarmenaren jarraipena eitxia, norabidia finkatzia eta arazoak egonez gero, konponbidia topatzia da.

- Hemendik aurrera?

- Azterketa ein dogu eta oin egoera txarrenean daudenekin lan berezi bat ein eta elkarte bakoitzaren arabera helburu konkretuak ezarriko ditxugu. Elkarte bakoitzari hiru urterako hitzarmen konkretua proposatuko diogu. Danon artian adostutako helburu hauek betetzia izango da erronka.

FERISALTSAN

San pedro egunekoa izan zen
uda parteko lehenengo feria



San Pedro egunean izan zen ekaineko feria. San Juanak igaro eta ordutik eguzkirik apenas ikusi dugun goiko aldean. Badirudi, suek madarikazioren bat luzatu eta lainoz beteriko uda izango dugula. Dena dela, eguraldia alde batera utzi eta edonon soma daiteke opor usaina. Zapatuko ferian, ohiko jendea, ez gehiago ez eta guxtiago ere. Beti bezala, ganadua ilaran jarrita. Eta hileroko postuak jende kurioz inguratua. Larrean aritzeko makina handirik ere ikusi genuen,

hauek bai erraztuko dutela baserriko lana! Guk geurea egin genuen, kamera hartu eta flash batzuk botaz behiei muturra aurrez aurre ikusi arteraino luzatu.

San Juanekin hasten da uda. Horiekin batera da oporren martxa igar-tzen. Eta ekainekoa dugu BARRENeN ateratzen dugun azken feria. Hurrengoa, San Bartolomeetakoa. Berezien artean berezietakoa. Eta oporrak amaitu diren seinale!

Joaten al zara auzoko jaietara?

Auzoetako jaiak

Auzo bakoitzak bere era dauka jaiak antolatzeko. Halere, guztietan batzorde bat osatzen da auzotarren artean eta horiek dira guztiaren ardura hartzen dutenak. Sei hilabete lehenagotik ekintzak zehaztu eta gauzak lotzen hasi beharra dago. Musika taldea kontratatu, rifak etara, bertsolariei deitu, herri kirolak antolatu... Gauza asko daude eiteko eta garaiz ibili behar da. Ostantzian, jaiak ailegatzen direnean, auzoko guztiak inplikatzeko dia era batera edo bestera, txozna montatzen, barran, garbitzen...

Jaietan demaseko alkartasuna egoten da eta hori inportantia da.

Udalak 400.000 pta.ko dirulaguntza ematen dio auzo bakoitzari bere jaiak antolatzeko. Baina kontuan euki behar da aurrekontua 3.500.000 pta.kua dala. Nere ustez Udalak gehiago lagundu beharko leuke, bestela poliki-poliki auzoetako jaiak desagertu egingo dira eta. Lan asko egin behar da aurrera etartzeko. Urtero-urtero, rifa danak saltzeko batera eta bestera ibili behar izaten gera, Elgetara, Getarira, Azkoitira... Herriz herri ibiltzen gera ahal danik gehien saltzeko.

Norberak bere auzoko jaietan ez du gehiegi disfrutatzen aukerarik izaten lana dala eta, baina beti da pozgarririk kanpoko jendia ikustia. Gero, ni neu auzo guztietako jaietara jun eta han oso gustura ibiltzen naiz, jendiakin berbetan, harreman handia eitzen da eta ligatzeko aukerarik ere ez da falta izaten. Lagun arteko girua izaten da azken finian.

San Pedruak ekainian, San Roke eta San Lorentzokoak abuztuan eta San Migelak irailian. Normalian baserritarrak ibiltzen gera auzoetako jaietan, baina herrikuetan bezelakuak dia, ekintza mordua eta giro jatorra. Edozeini esango nioke juteko, ikusteko eta disfrutatzen. Ziur hurrengo auzoko jaietara bueltatzeko gogoarekin geratuko dela.



Jose Antonio Garitagoitia



Jose Artetxe, 80 urte
Andikano (San Roke)

Ni zahartu naiz horretarako. Gaztetan ibiltzen ginan, gaztetan dana izaten da politxa. Gustora ibiltzen ginan San Migelen, Arraten... San Migelen azken samarrak izaten dia eta negua hasi baino lehen aprobetxau

bihar.

Mila Txurruka, 39 urte
Sagarraga (San Migel)

Ni gitxi urtetzen naiz, oin ume txixxa dakat eta. Lehen inguruko barrixuetan ibiltzen nitzan zeozer, San Pedron, San Lorentzon... Oin San Migelen bizi naiz eta jaietan



beste inplikazio bat dakat.

Maria Ieiaristi, 71 urte
Amasio (San Pedro)

Bai, jaietara urtetzia gustatzen jaku. Bertsolarixen bazkarixa, trikilarixak... Danetik euki dou San Pedroko jaietan. Barrixoko jaiak politxak izaten dia,

ambientia egoten da, jendia etortzen da...

Amaia Gabilondo, 18 urte
Eguen-Txiki (San Pedro)

Neretzat espezialak dia ze auzo bakoitzak jai desberdinak ditxu, bakoitzak bere ohiturak... San Lorentzora eta San Migelera ere juten naiz baina San Pedrokuak




onenak dia, nere barrixokuak. Zapatuko juergia gustatzen jata.

Vicenta Uranga, 58 urte
Ansorregi (Lastur)

Ez, ez dakat ohiturarik. Lehen gaztetan bai, Elgoibarrera eta etortzen ginan, San Migelera, San Pedrorra... Lasturren jai ederrak eukitzen ditxugu, zezena eta guzti. Famia badake behintzat.

Irunaberri

San Pedrorra iritsi, Aubixako bidea hartu eta berehala ezkerrean dagoen bideska amaierara arte jarraituz iritsi ginen Irunaberri baserrira. Bertan izan ginen Ana Mari eta Janirerekin, ama-alabarekin. Uztaila izanik ere, euri ximela barra-barra erortzen zen noizean behin, "alde haundixa dao egualdi onakin, eguzkixakin". Bista polita zegoen, halere. Pare bat orduz bertan galtzeko modukoa.



Janirek etxeko atarian eserita argazkian atera nahi zuen.

Tesus Mari kalean zen Irunabe baserrira hurreratu ginenean, "tailarrian egiten dau lan eta". Ana Marik darama baserriaren jira egunean zehar, "ortuan ibili, ganuari jaten eman...". Gustukua dute baserriko bizimodua. Ana Mari bizkaitarra da, Etxeberriako San Andresekoa. Jesus Mari da izatez Irunaberri baserrikoa. "Lana lehen eitzen zan baserrixan. Oin ere bai ortuko lanakin irabazten dabanak. Gure kasuan, etxerako bakarrik etaritzen dou eta askoz arina da". Esnetarako ganadua izan zuten garai batean baina kendu egin zituten, "goizian jei-tsi, eguerdixan jaten emon, gabian berriz jeitsi...Lan asko da eta gero apenas etekinik".

Abuztuan hondartzara

Uztailean gaude. Oporren esperantzan daude asko eta asko baina, "baserritxarrak ez daka oporrik. Ezin laike baserrixa laga". Abuztua aprobetxatzen dute Azpiazu-Lakatarrek hara eta hona ibiltzeko, "nahiz eta lotara etxera bueltau, eguna hondartzan pasa-tzia gustatzen jaku". Janire, alaba zaharra, gure artera hurreratu da. Urtean zehar, goizeko 8etan autobusa San Pedroraino igo eta eskolara joaten da auzotarrekin, "alde ederra. Bazkaldu ere bertan

eitzen dabe".

Kaletik gauzak faltan

Orain kotxeari esker oso gertu geratzen da baserria kaletik, "halere, badaude gauza batzuk ondiok falta diazenak. Butanua hartzera kalera

bajau bihar gera, medikurik ez dakagu gertu eta dendarik ere ez... ". Gauza txikiak baina bata bestearen ondoan jarrita garrantzi-tsuak direnak. Ana Marik esan digunez, "nik uste dot baserritarrak gehixo hurreratu gerala kalera alderantziz baino". Dena dela, aldeko eta kontrako gauzak izan arren, ez luke bere bizimodua aldatuko, "baserrixan libertade haundixa dakazu. Zure kontura egokitzen dozu eguna eta hori ez dao diruakin pagatzerik".

Familia elkartzeko ohitura

Janire auzotarrekin gustura ibiltzen da jolasean, "medikutara eta behixetara. Lau hankatan jarri eta behixak bezela ibiltzen gera". Orain pasa berri dituzte auzoko jaiak, San Pedroak. Oso ondo ibili dira eta giro berezia ematen die jaiak inguruari. Horrelakoetan, San Pedro jaietan, bazkari familiarra egiteko ohitura dute Irunaberri baserrian, "jaixetan eta bestela hilian behin ere. Hola behintzat alkartu eta ikusten gera. Lehenguan ere ilobak soinua ekarri zaban eta gustura ibili ginan dantzan".


Gustura daude auzoko alkatearekin, "gaztia da eta indarra ikusten jako, zeozer eitxeko goguakin eta hori inportantia da". San Pedrorra arteko bideak behintzat badu konponketa beharrik.

IRUNABERRI

- **Auzoa:** San Pedro
- **Bizilagunak:** Jesus Mari Azpiazu, 42 urte; Ana Mari Laka, 32 urte; Janire Azpiazu Laka, 7 urte eta Oihane Azpiazu Laka, 3 urte.
- **Lur hedadura:** 23 hektarea
- **Ganadua:** 10 behi okelatarako.
- **Produktua:** Etxerako barazkiak.

MENDARON TABERNA

Ezkundu aurretik kalean bizi izan ziren. Ana Marik taberna izan zuen Mendaron, Jai Alai. "Lotura haundiegixa zan. Gizona egun guztian tailarrian sartuta eta neu tabernan". Horrela bizitzerik ez zegoen, ez zuten apenas elakr ikusten eta. Bost urte tabernarekin egon eta gero, hura utzi eta baserrira igo ziren. Gaur arte.

Agustin Irusta:**"Kaletarrek ez dabe baserrirako bidia ikasi"**

37 urte dituen sanmigeldar hau aski ezaguna da herrian. Uba-Txiki baserrian jaioa, oroitzapen asko ditu bertan, 29 urtera arte bertan bizi baitzen. Udaletxean baserritarren zinegotzia ere izan da Agustin, saltsa guztien perexila dugu, jairik jai beste inoren aurretik joan izan den horietakoa, bai juergara bai eta, hala tokatu denean, antolatzaile ere. Ezkondu zenetik kalean bizi den arren, baserritar sentitzen da.

- Zerk egiten du baserritar?

- 29 urte bete arte bizi izan nitzan baserrixan, jaio nintzanetik. Eta hori barruan gera-tzen dan sentimendua da. Ondiok ere, nere ilusia astebukaeria iritsi eta baserrira ixotzia da.

- Zergatik erabaki zenduten, beraz, kalean bizitzea?

- Egixa esan, ez genduan planteatu ere egin baserrira bizitzera jutia. Gainera, baserriko bizimodua zaila da gaur egunian.

- Zein imagin dator kizu baserriaz oroitzean?

- Lan asko egin nuan, hori dudarik gabe. Gero, goizian jaiki eta, udaberrian batez ere, txoriak abesten, ganadua inguruan...

- Zuen baserrixa da Elgoibarko altuena.

- Bai, 512 m.ra dago. Elurra ere noiznahi izaten zan, oin ez du hainbeste egiten baina lehen asko. Ko-txia ezin aterata, txoriak harrapa-tzen ere ibiltzen ginan...

- Nola da hori?

- Elurra egiten zuanian, elurra kendu eta lurmena geratzen zan tokixan borobil bat eiten gendun, galbaia ipintzen gendun makil batekin azpizan eta txorixa sartzen zanian jatekuan bila harrapatu eitzen gendun. Txorixa esku artian euki-tzen gendun eta gero berriz solte laga.

- Baserritik bizi zineten, ez?

- Bai, nere lan bat izaten zan eskolatik bueltan artaldian bila jutia mendira.

- Bakardadea ez al da sentitzen?

- Bakardadia ez, lo uniko, behin

edade batetik aurrera kotxia edo bihar kalera bajatzeko.

- Kuadrila auzokoa duzu.

- Bai, gehienbat baserritarrak baserritarrekin elkartzen gera. Jende antzerakuaua gera eta nahiz eta nahi ez lagunartia gure artian osatu gendun.

- Sanmigeldarra, ez?

-Bai, lelengo sanmigeldarra eta gero elgoibartarra.

- Elkartasun handia duzue auzotarrek.

- Bai. Guk izan deun suertia izan da elkarte bat euki dogula eta horren bueltan bildu izan gera beti, edade guztietako jendia. Gure bizitza soziedadian izaten zan eta denok sentitzen ginan lagunak.

- Baserritik kalera arteko bidea egin da. Alderantziz?

- Nik usten dot ezetz. Esaterako, jendiak ez dau baloratzen baserriko produktua, oso gitxi fijatzen da zer jenero erosten duan. Gainera, baserritxarrik egongo ez balitz, mendiak sasiz beteta egongo zian, biderik gabe askotan. Ez da baloratzen. Igual lehen zauan "casero" kontzeptua aldatu ein da baina ondiok sentsibilidade falta dao.

- Zinegotzia izan zinen.

- Bai. Denbora asko ibili zian atzetik eta azkenian baietz esan nabna, usten nabalako zereinik bazauala. Eta oso pozik geratu nitzan, gauza asko ein zian eta inportantiena DEBEMEN sortzia. Lan asko ari da eitxen. San Migelen frontoia ere ein zan, Urruzunon lokal soziala, San Roken ere, San Lorentzon parkia txukundu... Ondiok gauzak falta dira eiteko eta gero biharrezkua da mantenimentu ona egotia.

- Loteriarik onena?

- Tokau ezker, baserri eder bat erosi, ganaua ipini eta han eingo naban bizitza.

Genma Arias

Donna
edergintzako



- **Zera hotza ala beroa?** ▶ Hotza, garbiagoa eta azkarragoa izateaz gain, ileak hobeto kentzen dituelako.
- **Gizonezkoak etortzen al dira depilatzaera?** ▶ Bai.
- **Zenbatean behin depilatzen zara?**
▶ Hilean edo hile t´erditik behin.
- **Eguzkia ala solarium-a?** ▶ Solarium-a, ez baitzara erretzen.
- **Nor sartuko zenuke solarium-ean?** ▶ Brad Pitt.
- **Zenbat kostatzen da sesio bat?** ▶ 10 sesiotako bonoak ditugu 6.500 pta.n eta sesio bakoitzak 700 pta. balio du.
- **Pertsona bat ikustean, zertan fijas zara?** ▶ Begiradan.
- **Gorputzeko zein atal duzu gogokoen?** ▶ Aurpegia.
- **Ba al duzu ilerik mingainean?** ▶ Ez.
- **Makilatzen zara?** ▶ Bai, astebukaeran.
- **Nor gustatuko litzaizuke makilatzea?** ▶ Cindy Crawford.
- **Bizitzako zer makilatuko zenuke?** ▶ Zoriontasuna.
- **Zimurak ederrak al dira?** ▶ Batzuk bai.
- **Gaztetasuna kontserbatzeko formula?**
▶ Nor bere buruarekin gustura egotea.
- **Ikusi duzun azken pelikula?** ▶ “Doce monos”.
- **Hondartza ala igerilekua?** ▶ Hondartza, toki gehiago dago eta.
- **Udako oporrak non?** ▶ Oraindik ez dakit.
- **San Ferminetara joango al zara?** ▶ Ez, eta ez naiz sekula joan.
- **Bainujantzia ala bikini?** ▶ Bikinia.

MAITE IRIONDO

SOLARIUM-a

DOINUA:

Aita Izena

Nahikoa hotza izan da beti gu bizi geran iparra hala ere udan eguzkiak du gure artean indarra solariuma da aro denetan jendearentzat biltzarra alde batetik ez du berorik bestetik izpien garra haxe daukagu gure arteko Benidorm partikularra.

Hainbat ta hainbat andra morena kaleetatik badoa eguraldia begiratuta oso eskaxa giroa laino guztiak estaltzen dute eguzkiaren beroa nik buruari galdetu diot: bihurtu al naiz txorora? euriarekin denak moreno hau ez al da arrarora?



KEPA MENDIKUTE

B
E
R
R
E
T
O
T
A
N



*Ekainaren 22an, 32 urte zituela, hil zen
JOSE LUIS ALONSO BASALOren sendiak bihotzez
ESKERTZEN DITU JASOTAKO DOLUMINAK,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



Borondatez egiten dute lan suhiltzaileek

Aspaldian ez da suterik, uholderik edo antzeko ezbeharrik izan Elgoibarren. Horrelakoetan, halere, Udaltzaingora deitu eta bertan kontaktuan jartzen dira herrian dauden suhiltzaile bolondresekin.

Gaur egun 9 pertsonak osatzen dute taldea: Tino, Angel Garate, Atorra, Fernando Dominguez, Manu Konde, Juan Escudero, Eugenio Fernandez, Alex Sota eta Manuel Nova. Horiek guztiek beraiek hala nahi dutelako eskaintzen dute zerbitzua. Orain urte batzuk ikastaroa egin zuten; teorikoa Eibarren eta praktikoa Oñatin.

Gaur egun, bakoitzak buska bat dauka egun osoan zehar ezbeharren bat gertatuz gero, berehala harremanetan jarri ahal izateko.

Suhiltzaileen parkea San Roken dago. Bertan, Diputazioak jarrita, tresneria guztia dago, motobonba, mangerak, eskailetrak... Elgoibartarrek ezin badiote aurre egin ezbeharri, SOS Deiak-era deitu eta bertatik Oñati edo Eibarko suhiltzaileak bidaltzen dituzte. Halere, orain artean ondo baino hobeto moldatu izan dira herritarrek egoera ezberdinen aurrean. Orain hilabete batzuk Urtia inguruan izan zen sutea oso-osorik itzali zuten eibartarrak iritsi orduko.

Gaur egun, lanik apenas dagoen. Norbaiti gil-



tzak etxe barruan ahaztu eta sartu ezinik kalean geratu delako, suhiltzailea leihotik sartu beharra izatea. Halere, kasu hauetan, premiazko kontuak ez badira, 2.000 pta. ordaindu beharko da aurrerantzean. Kopurua sinbolikoa da, Garro sargentuak adierazi bezala, "azken finean, gauza horiek egiteko beste profesional batzuk daude eta. Borondatez aritzen diren suhiltzaileak larraildiatarako daude".

Borondatez aritzen diren suhiltzaileek 15.000 pta. jasotzen dute hilero.



San Roken kokatzen da suhiltzaileen parkea. Bertan daukate beharrezko materiale guztia: motobonbak, mangerak, extintoreak, jantzi bereziak...

"Bederatzi lagunez osatutako taldea borondatez aritzen da. Egun osoan zehar buska daramaten gainean"

OIERKI IGONGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua
☎ (943) 11 35 15 • ☎ ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal

URKIDI
AHOLKULARITZA
ASEGUROAK

Kalamua 12
ELGOIBAR
Tel-Fax:
74 18 91

GOXO
Ortutzi, Armitu, galea, Ederren
etxean egindako barkiloak, MERIENDAK
erroskilak,... **GUREKIN!**

KEMEN  Belardenda
MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA
San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

Albizko etxea

- Altzola auzunean aintzinako zubiaren ondoan eta Deba ibaiaren eskuin aldean aurkitzen da Albizkoa edo Naparkua.
- XVII. mendeko bigarren erdi aldeko eraikin barrokoa, Altzola ibai portuko lonja garrantzitsua eta etxea izan zen. Eraikina Lucas Longa mendarotarrak eta Zuazo arkitektoek diseinatu zuten.
- Eusko Jaurlaritzak 1994. urteko urriaren 21ean monumentu izendapena eman zion kultur ondare izendatuz eta hala ageri da Euskal Kultur Ondarearen zerrendan.
- Oinplano angeluzuzeneko etxea da. Beheko solairuaz gain beste bi eta ganbara ditu, estalkia lau isurkitara izanik. Etxe barrutik harmailen bitartez sotora jaisten zen. Ibaiko ura etxe azpiraino iristen zen.
- Mendebaldeko fatxada osoa ibaian sartzen diren pilareak eta arkuak, ipar aldeko fatxadako bederatzi leiho eta eskantzuak harlanduz eraikiak daude. Gainontzeko fatxadak eta baoguneak zarpeatuak eta zurituak aurkitzen dira.
- Eraikin honek bere historia luze-

an hainbat aldaketa jasan ditu eta badirudi sotoko lau arkuak ibaian sartzen den kontraormaraino jatorrizko luzera adierazten dutela. Beraz, kontraorma sendo horretatik zubiraino askoz berriagoa da, baoguneetan ikus daitekeen bezala.

- Hego aldeko fatxada ere berria da. 1953. urtean Altzolako saiheztibidea egin eta zabaldu zenean fatxadaren hiru metro pasa sakonean kendu ziren, harlanduzko hormaren ordez zementuzkoa eraikiz.
- Ekialdeko fatxada berriagoa da ipar eta mendebaldekoak baino eta handik luzatu zen etxea XIX. mendean.
- Mendebaldeko fatxadak beheko solairuan eta erdiko ardatzean kokatutako sarrera dinteldua du. Lehenengo solairuan galeria bat dago, toskaniar motako kolomek (arroina, fuste leuna eta kapiteldoriarra) hainbat moldurez eratutako erdi puntuko hiru arku eutsiz. Bigarren solairuan hiru leiho laukizuzen daude eta ganbaran bi leiho txiki.

PELLO ARRIETA



Francisco Lejarazu Saez de Viteri

(1927-1986)



- 1927ko irailaren 2an jaio zen Arabako Mendarozketa herrian.
- Eskolan aritu ostean nekazal lanetan jarduten zuen etxean.
- Soldaduzka eginda, 21 urterekin Elgoibarrera etorri zen lanera, "Forjas de Elgoibar"era. Geroago, "Industrias Elgo"ra aldatu zen.
- Mercedes Aizpirirekin ezkondu eta familia sortu zuten Elgoibarran.
- Gogoko zituen zaletasunen artean perretxiko batzea zeukan estimatuena. Pardelkada ederrak batutakoa zen. Gai honetan ospeko gizona izan zen jakinduria handia hartu baitzuen.
- Ehizean ere ibilaldi dexente egindakoa, eta mendizale amorratua.
- Gizon oso ezaguna zen, irribarre irekikoa eta sinesmenduna.
- 1986ko uztailaren 10ean hil zen 59 urterekin.

JUANITO GOROSTIZA



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



UDA BERRI ELGOIBAR

MOTZAK

Josu Ibarra, Gipuzkoako jokalaria onena

Gipuzkoako Futbol Federazioak denboraldiko jokalaria onenaren saria Josu Ibarra elgoibartarrari ematea erabaki du aurten. Jubenilen mailan aukeratu dute Gipuzkoako onena eta dagoeneko jaso du garaikurra. "Sari inportantea" dela azaldu digu 18 urteko futbolari gazteak, "oso pozik egoteko modukoa". Ibarra Sanse-n jokatzeko ari da eta bihar, zapatua, Frantziarantz abiatuko da Espainiko 18 urtez azpiko selekzioarekin Europako Txapelketa jokatzeko. Eurocoparen pareko txapelketa da, 18 urtetik beherako selekzioen txapelketa. Orain ez dakite zein taldean dauden, hortaz, oraindik ez dituzte zelaian arerio izango diren taldeen izenak ezagutzen. "Dena den, txapelketa polita egitea espero dugu. Ekipo ona daukagu eta kontuan izan behar iaz Espainiako selekzioa txapelduna izan dela. Hortaz, irabazteko aukera handiak ditugu". Zorte on eta zorionak!

"Joseba Etxeberria"ren peñaren bilera

Joseba Etxeberria Athletic-eko jokalaria elgoibartarraren aldeko peñak bilera egingo du datorren ostegunean, hilak 11. Jokalaria gaztearen jarraitzaile guztiei bilerara joan daitezkeen dei egiten diete antolatzaileek. Bilera Kultur Etxean izango da arratsaldeko 8etan.



Lore Agirrearzaldegi:

"Atezainak tentsiuan gaude beti"

■ **Zein sari eman dizute?** - Territorialian nabarmentzen den jokalarixari ematen zaiona.

■ **Urtero saritzen dute elgoibartarren bat, ez?** - Bai, lengo urtian gure ekipoko bati eman zioten.

■ **Ez zarete guztiz txarrak.** - Ononak ez baina txar-txarrak ere ez.

■ **Gipuzkoako selekzioarekin Euskadiko txapeldunak izan zarete.** - Zaila euki gendun. Bi egunetan hiru partidu. Pentsatzen gendun Bizkaixan kontra galdu eingo gendula baina azkenian Nafarruan kontra ibili ginan justu-justu.

■ **Zenbat titulu eskuratu dituzue gaur arte?** - 6. mailan Euskadiko Txapelketa irabazi gendun eskubaloian eta Gipuzkoako txapeldunordiak fubolian. 7. mailan Gipuzkoako bigarrenak; zortzigarrenian Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldunak eta Espainiako bosgarrenak. Iaz Gipuzkoako Kopia eta Ligia eta aurten kadetietako gaztiak gurekin jokatu dabe eta Kopako eta Ligako bigarrenak geratu gera.

■ **Irabaztera ohituegi zaudetela diote.** - Partiduak errez irabazten genitxunez, galtzen gendunian palo haundixa izaten zan.

■ **Datorren urtean jubeniletan?** - Bai. Lehen ezin gendun igo ez zaukagulako jubeniletan ekiporik



baina datorren urtian gu jubeniletan eongo gera eta kadetiak ere eongo diane ba, espero dogu igo-tzia.

■ **Lesioak izan dituzu.** - Denboraldi hasieran ukalondua euki dot gaizki eta hiru hilabete eon naiz jokatu gabe eta denboraldi erdixan beste ukalonduan euki dot lesiua baina errez sendatu da. Teknika faltia zala esan zien.

■ **Atezain gustuz, ala tokatu egin zitzaizun?** - 'Zu jarri hor', eta hola hasi nitzan. Hasieran hiru edo lau ginan baina gerobi geratu ginan. Bixok jarraitzen degu.

■ **Min gehien hartzen duena al da atezaina?** - Min fisikuakin ohi-txu eitzen zera. Baina psikikua haundixaua da ze, gol bat sartzen dizuenian desmoralizau eitzen zera. Alrrebes izan biharko zan. 'Hurrengua gelditxu eingo det' pentsau baina...

Gol bat sartzen diatenian nere errua dala pentsatzen det.

■ **Atezainak eta jokalaria oso desberdinak al dira?** - Bai, guztiz. Asko kantzatu eta izerditzen da, asko mobitzen zera eta tentsiuan zaude beti.

• **Adina: 16**
• **Oporleku gogokoena? Hondartza eta mendixa gustatzen jataz**
• **Trena ala autobusa? Trena politxaua da baina autobusa komoduaua**
• **Atezaina ez bazina? Estremua**



Nora begira zaudete? Zatozte lehenbailehen gida baimena ateratzera!

LARRAÑAGA autoeskola

Gazte txartelarekin %10eko BEHERAPENA izena ematean

Santa Ana II - ☎ 74 10 11 - ELGOIBAR

EMAITZAK

Ekainaren 29 eta 30eko emaitzak

Koipez Ase 5 - Euromixto 0

Vultur Griphus 2 - Pedruskos 2

C. D. Vallecas 3 - Ez Baikorrak 9

Peña Alaitz 2 - Puta Mierda 2

Rebel Urbi 0 - Kriston arrautzak 8

S. Pitxote 4 - La Colina 3

Vaso Play 6 - Lucky Luke 3

Gazteak 1 - Numancia 7

M. Lojan 9 - Cachi Potas 1

Lagun Onak 8 - Thunderdome 1

Karkis 4 - 12 Monos 5

Bar La Amistad 2 - Udaberri 6

Uztailak 2ko emaitzak

Zokoa 12-R.De Elgoibar 1

Lagun Onak 2-Cachi Potas 0

Karkis 5-M.Lojan 3

O.Frantziskana 7-B.Duro 0

Lucky Luke 3-Numancia 1

Lagun Toki 2-Grassoper 3

12 Monos 4-Thunderdome 7

S.Pitxote 1-Vaso PLay 5

Txirinbitxu 4-B.La Amistad 0

La Colina 4-Gazteak 2

AGENDA

Larunbata, 6

9,00 Numancia - Vaso Play

12 Monos - Cachi Potas

10,00 Lagun Toki - Berrogei Duro

Txitxinbitxu - Koipez Ase

11,00 R. de Elgoibar - Grassoper

Thunderdome - Karkis

12,00 Zokoa Club - O. Frantziskana

M. Lojan - Lagun Onak

13,00 S. Pitxote - Gazteak

Lucky Luke - La Colina

Igandea, 7

10,00 Xare - Rebel Urbi

11,00 Euromixto - B. La Amistad

Kriston Arrautzak - Peña Alaitz

12,00 Vaya Robo - C. D. Vallecas

Txirristaka - Anorthosis

13,00 Ez Baikorrak - Vultur Griphus

Manitu - Emoio Gatz

Asteartea, 9

18,00 Lucky Luke-Gazteak

La Colina-Vaso Play

19,00 S.Pitxote-Numancia

M.Lojan-Thunderdome

20,00 O.Frantziskana-Grassoper

12 Monos-Lagun Onak

21,00 Zokoa-B.Duro

Cachi Potas-Karkis

22,00 Lagun Toki-R.De Elgoibar

Txirinbitxu-Euromixto

Osteguna, 11

18,00 Ikas Gutxi-Anorthosis

19,00 Pedrusko-C.D.Vallecas

Txirristaka-Manitu

20,00 Vaya Robo-Ez Baikorrik

Puta Mierda-Rebel Urbi

21,00 Udaberri-Koipez Ase

Xare-Kriston Arrautzak

Zortzi sari irabazi ditu aurtengo denboraldian Elgoibarko eskubaloiak

Elgoibarko Kirol Elkarteko Eskubaloi Taldeak Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak ematen dituen sarietariko batzuk irabazi ditu. Batetik, klubak dituen lau kategorietan, sarituak izan dira Gipuzkoako txapeldunorde geratu baitira talde guztiak: kadete neska eta mutilak, jubenil mutilak eta senior mutilak. Beste saririk ere jaso dute: Ales Arrietak eta Jose Peñarandak, kadete nesken entrenatzaileak eta ordezkariak hurrenez hurren, bai eta kadete nesken ekipo osoak ere "kiroltasunaren saria" irabazi zuten. Honez gain, Lore Agirrezaldegik, kadete nesken atezainak, Gipuzkoako jokalaririk bikainenari ematen zaion saria merezi izan zuen. Zorionak denoi!

Euskadiko txapela

Alboko argazkian, atzetik hasita tente, Amaia Jauregi, Irma Aldazabal, Leticia Astray, makurtuta Lore Agirrezaldegi eta Ainhoa Torres. Bost neska hauek, kadete nesken taldekoak direnak, Gipuzkoako selekzioan jokatu dute Euskadiko Txapelketa eta irabazle geratu dira. Arabako selekzioaren kontra 5 golen aldeagatik irabazi

zuten; bizkaitarren aurka 7rengatik eta nafarren aurkako partiduan gol bakarreko errenta lortu zuten. Hiru partidua irabazi ostean Euskadiko txapeldunak geratu ziren. Euskadiko Txapela eskuratu badute ere ez dute Espainiako txapelketa jokatu, selekzioka jokatu beharrean, ekipo-ka jokatu baita. Horrela, Amaia Jauregi, Leticia Astray, Ainhoa Torres eta Ariane Peñaranda elgoibartarrak Eibarko Arrate taldean jokatzeko aukeratu zituzten eta Espainiako Txapelketan jokatzen aritu dira.



Goian, selekzioarekin jokatu duten bostak eta gainean, saritutako guztiak.


J. R. Zabala aukeratu dute C.D.ko presidente

Jose Ramon Zabala, 26 urteko elgoibartarra da C.D. Elgoibar Elkarteko presidente berria. Joan den astelehenean egin zuen klubak urteko asanblada eta orain arte presidente izan den Manolo Esnaola 'Muxi'ren ordezkotako aukeratu zuten Zabala. Muxi, berriz, presidenteorde izango da. Honez gain, 95-96 denboraldiko

balantze ekonomikoa ere onartu zuten, 2.789.000 pta.ko zorra, hain zuzen. Etxeberriaren fitxajearengatik klubak 55 milioi pta. jaso zituen eta hauen interesak 4 milioi t'erdikoak izan dira aurten. Muxiren esanetan, "diru-sarrera extra hau dela-eta, klubak zenbait gastu ez-ohiko egin ditu, hala nola "Klubaren eguna" kendu, material gehiago erosi, jokala-

rien soldatak igo etab. Honek guztiak zor horren handitzean eragina izan du". Honez gain, klubak uste baino diru gutxiago irabazi du kuponazoarekin (1,5 milioi gutxiago), Uda-

lak milioi bat pta. gutxiago eman die eta San Bartolomeetako zozketa ere ez dute egin. Igoerako playoffean sarreraren bidez jasotako diru kopurua ere uste baino txikiagoa izan da.



95/96ko GASTU/SARREREN EMAITZA

GASTUAK:

▲ Soldatak	7.123.000
▲ Primak	3.439.000
▲ Beste soldatak	1.396.518
▲ Taldekoen bidaiak	1.603.910
▲ Haundikoen bidaiak	1.185.510
▲ Kirol materiala	1.635.880
▲ Arbitraiak	1.399.478
▲ Bestelako gastuak	(...)
▲ Guztira	22.881.862

SARRERAK:

▼ Bazkideen kuotak	5.790.000
▼ Etxeberriaren fitxajearen interesak	4.445.194
▼ Publizitatea	2.011.600
▼ Gabonetako errifa	1.232.823
▼ Kuponazoa	1.300.000
▼ Takila	1.096.550
▼ Errealaren laguntza	1.340.000
▼ Udalaren laguntza	599.400
▼ Bestelako sarrerak	(...)
▼ Guztira	20.092.709

• **Kirol flasha** • **Kirol flasha** • **Kirol flasha** • **Kirol flasha** • **Kirol flasha** •



Olaizaga Kiroldegiko Karate Taldeak

antolatuta, eskolarteko Karate Txapelketa burutu zen ekainaren azken asteburuan. 14 urtetik beherako 70 bat karatezalek hartu zuten parte, Markiña, Oñati eta Elgoibarko Karate Klubetakoak. Alebin eta infantil kategorietan lehenengo postuetan sailkatu ziren elgoibartarrak hauexek izan ziren: albeinetan David Rodriguez lehena, hirugarren postuan Carlos Feijoo eta laugarren Andoni Armendia. Infantiletan Josu Duran hirugarren geratu zen eta laugarren postuan Cristian del Rio eta Mikel Armendia.

Uztailean hasiko da aire libreko zinea

Urtero bezala uda sasoiarekin batera Herriko Antzokiak atek itxi eta aire libreko zineak hartzen du txanda. Aurten ere, Udaletxeko kultur zerbitzuko iturrien arabera, aire libreko zinea egon egongo da, "oraindik zehatz noiz hasiko den esaterik ez dugun arren. Gure asmoa datorren ostiralean, hilak 12, hasia da, baina erabakia hartzeke dago".


Ongarri eta Udala

Azken urteotan Ongarri Zine Kluba izan da aire libreko zinearen ardura izan duena. Aurten, ordea, erbakitzeke dago nork izango duen gai honen ardura. Bi aukera daude: batetik, Udala bera izatea zinea muntatzen duena eta erakunde pribatu baten esku uztea pelikulak ematea eta bestetik, muntaia eta emanaldiak Ongarriren esku lagatzea.

Emanaldiak

Zine emanaldiak astebu-

ruetan izango dira. Bi egunetan: ostiral eta larunbat gauean, hain zuzen. Uztailean ez zik, abuztuan ere egongo da zinea, baina San Bartolome jaien aurretiko eta ondorengo astean bakarrik. Ohi denez, zinearen kokalekua Plaza Handia izango da. Emanaldiak datorren ostiralean hasten badira, Tarantinoren "Abierto hasta el amanecer" pelikula eskainiko da. Filme hau Berlinoko Zine Jaialdirako hautatutako peliulen artean dago.



• Kultur flasha • Kultur flasha • Kultur flasha • Kultur flasha • Kultur flasha •

San Pedro auzoan amaitu dira jaiak. Urtero bezala prozesioa eta meza nagusian auzotar guztiak elkartu ziren. Pilota partiduak, idi demak, herri kirolak etab. izan ziren asteburuan zehar bai eta Kilometroen bueltan antolatu zen Bolo eta Toka txapelketa ere. Argazkian, txapelketako irabazleak ditugu Sei eta Beder maskotekin batera: atzean ezkerretik hasita, Javier Arrizabalaga, kanpotarra, Jose Irusta, Angel Ibarluzea eta makurtuta irabazle geratu zen beste kanpotarra.



10 hilabete pasa ditu Salt Lake City hirian, Utah estatuko hiriburuan. Magisteritza eta pedagogia ikasketak egin eta gero, ingelesari heldu nahi izan zion eta Amerikara alde egin zuen. Orain pare bat aste itzuli zen, hizkuntza ezezik, beste hainbat esperientzia berriekin ere.



E "Utah kontrastez beteriko estatua da"

D
U

- **Estatu Batuen mendebaldean dago Utah, ez?** - Bai, Kalifornia, Nevada eta inguru horretan.

- **Zergatik joan zinen?** - Karreria eitzen nauanian argi nakan oso inportantia dala inglesa ondo jakitzia. Markinako ezagun bat nakan han eta hola animatu nitzan. Lagunak bi urte zeramatzan bertan.

- **Zein zen plana, lan egi-tea?** - Helburua inglesa ikastia zan eta ni ikasle bisatuakin jun nitzan. Baina han bertan lan itxeko asmua nakan, nere kontura pagatzeko gastu guztiak.

- **Eta lortu zenuen?** - Bai, familixa batekin egon nitzan eta lana eskaintzen zian, Markinako lagunak ere.... Poliki-poliki batian eta bestian lortu naban lana. Danetik ein naban, Indiano jatetxe batian kamarero, pintetan, belarra mozten etxietako jardinetan, zaldixen kaka kentzen establuetan, unibersidadian pasilluak garbitzen...

- **Familia batekin bizi izan zinen, beraz?** - Hasieran bai baina gero nere kontura jun nitzan apartamentu batera. Han, Malasiako gizon batekin bizi nitzan. 72 urte zitxun eta poetia

zan, 10 liburu zitxun publikautan. Azkenengo liburua redaktatzen lagundu nion.

- **Eskola batera joaten zinen ikastera.** - Bai, goizian jun, han bazkaldu eta arratsaldian ere klasia eukitzen naban. Munduko herrialde guztietako jendia zauan, Tahiti, Rusia, Txile...

- **Arraza askoren nahastea, ez?** - Bai, baina harrixuta geratu nitzan zela hainbeste arraza desberdin dauden eta hain ondo konpontzen dian. Hombre, razismua ere badao, baina ez dakitx hemen han bezain ondo konponduko ginan beste arrazako jendiakin.

- **Astebukaeratan zer egiten zenuen?** - Ez nitzan ixa urtetzen. Astegunetan ikasi eitzen naban eta asteburuetan lana. Libre nakanian mendira juten nitzan.

- **Inguruak oso politik dira, ez?** - Bai, pasada bat, oso oso politxa. Danetik dakazu, mendi mordo bat, matrikuletan ipintzen dau han egoten diala elurterik haundixenak, desertua, parke natural pila bat... Kontrastez betetako tokixa da.

- **Berezitasunik?** - Ba han

gehixenak mormoiak dia, %75a. Indar handixa daka erlijuiak eta horrek berezitasuna ematen dio Estatuari. Gauza kuriosuak daude. Esate baterako, legearen arabera dutxatzeko ere gantzontziloak eskuan izan behar dituzte, ezin dira inoiz erabat biluzik egon. Dana dala oin ez dabe hau errespetatzen.

- **Poligamoak ere omen dira.** - Berez bai baina gaur egun oso gutxi parktikatzen da. Poligamia asuntuagatik arazuak euki zitxuen estatu independente izateko orduan. Mormoien fundatzaile batek 108 seme-alaba izan zituen. Helduen artian ere igartzen da zela oso errez aldatzen daben parejaz. Nere familixakuak diborziata zeuden baina semiengatik batera bizi zian, nahiz eta bakoitzak bere bizitza ein.

- **Itzultzeko asmorik?** - Ez. Inglesa ikastera jun nitzan eta oin nere asmua hezkuntza munduan sartzia da, ilusionauta nao hori eitxeko. Momentuz partikularrak ematen hasi bihar naiz.

- **Elgoibarrera etorri eta egin zenuen lehen gauza?** - Familixiakin bazkaldu eta Karakatera jun.

Salerosketak

- ❖ TXISTUA eta KLARINETEA saltzen ditut. ☎ 74 32 94 6etatik aurrera
- ❖ PIANO BAT saltzen ditut. Egoera oso ona. ☎ 74 15 56
- ❖ Haurrentzako MOUNTAIN BIKE salgai. Prezio ona. ☎ 74 10 80 (arratsaldeko 7etatik aurrera)
- ❖ ARRAINDEGIA traspasatzen da Plaza Merkatuan. ☎ (94) 683 14 42
- ❖ POSTU BAT traspasatzen da Plaza Merkatuan. ☎ 74 36 38
- ❖ BIGARREN ESKUKO BARADUN TRONBOIA erosiko nuke. ☎ 74 21 86 Mikel

Garajeak

- ❖ Marradun garaje bat alokatzen da pista beltzean. ☎ 74 01 77
- ❖ Garaje bat saltzen da King-Kongen. ☎ 76 17 95
- ❖ Marradun garajea alokatzen da Urasandin. ☎ 74 31 07

Partikularrak

- ❖ Uztailean FRANTSESEKO PARTIKULARRAK emango didan norbait behar dut. ☎ 74 02 13
- ❖ KLASE PARTIKULARRAK ematen ditut udan. OHO, BBB, REM eta ingelesa. ☎ 74 15 82 Eduardo
- ❖ KLASE PARTIKULARRAK ematen ditut udan. ☎ 74 01 48 Alazne
- ❖ Tituludun irakasleak PIANOKO KLASEAK ematen ditu udako lanetan laguntzeko eta iraileko examinak prestatzeko. Baita, armonia, transporte eta repentizazioko klaseak. ☎ 74 04 11 Silbia
- ❖ Enpresarialesen lizentziatuak KONTABILITATE eta BALANTZE ANALISIAri buruzko partikularrak emango ditu udan Eibarren. ☎ 12 16 38 Ainhoa

Lana

- ❖ HAUR BAT zainduko nuke UZTAILEAN. ☎ 74 17 61
- ❖ Astebukaeratan SUKALDEAN lan egiteko pertsona bat behar da. ☎ 74 37 71

- ❖ GONAK JOSTEN ditut neurrira eta edozein motatako konponketak egiten. Zaharra ekarri eta berdina egingo dizut. ☎ 74 21 40 Konsuelo

Agurrak

- ❖ Hilaren 7an 6 urte beteko dituen MIKEL TADEOri Super zorionak bere lehengusin Aneren partez.
- ❖ NAIARA BABARROri zorionak gaur, hilak 5, 16 urte betetzen dituelako. Guraso eta Lorena ahizparen partez.
- ❖ Zorionak MARIA ISABEL AIZPURUari bere senarra eta seme-alaben partez.
- ❖ JON GERRIKABEITIAri hilaren 14n 16 urte egingo dituelako, zorionak arrebaren partez.

Bestelakoak

- ❖ Uztailean eta abuztuan Donostiara goizez joan eta arratsaldez bueltatzeko jendea behar da. ☎ 74 40 62 Agustin.
- ❖ Raketa bat galdu nuen Plaza Handian orain dela bi aste. ☎ 74 11 11
- ❖ Orain dela hilbete bat King-Kong-eko portalean erloju bat aurkitu nuen. ☎ 74 15 69 Miren

EKAINEAN

Hildakoak

- Jose M. Balseiro Otero, 86 urte (Ekainak 1)
- Domingo Lariz Agirrebeña, 74 urte (Ekainak 4)
- Guadalupe Oteiza Mendikute, 77 urte (Ekainak 6)
- Iñaki Intxausti Larrañaga, 37 urte (Ekainak 8)
- Jose Luis Alonso Basalo, 32 urte (Ekainak 11)
- M. Asunción Arrieta Etxabe, 79 urte (Ekainak 11)
- Jose Salbide Munarriz, 75 urte (Ekainak 30)

Jaiotakoak

- Aitor Santaren Zabala (Ekainak 6)
- Ane Espilla Juaristi (Ekainak 11)
- Lara Martínez San Martin (Ekainak 12)
- Iñaki Gabilondo Intxausti (Ekainak 22)

Ezkondutakoak

- Jose Luis Luengo González eta M. Dolores Otero Gallego (Ekainak 1)
- Carlos Moreno Andrés eta M. Koro González Conde (Ekainak 29)



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak. Donostia eta probintziako eritetxe zentruetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07 01

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
6, larunbata:	Yudego	Escala
7, igandea:	Yudego	Escala
8, astelehena:	Etxeberria	Etxeberria
9, asteartea:	Etxeberria	Etxeberria
10, asteazkena:	Etxeberria	Etxeberria
11, osteguna:	Etxeberria	Etxeberria
12, ostirala:	Etxeberria	Etxeberria

OKINDEGIA:

7, igandea: ZABAETA

5 OSTIRALA

22,15 ZINEA

“Coacción a un jurado”

6 LARUNBATA

19,30-22,15 ZINEA

“Coacción a un jurado”

7 IGANDEA

18,30 GELATXOREKIN
DANTZALDIA

✓ Plaza Handian

19,30-22,15 ZINEA

“Coacción a un jurado”

8 ASTELEHENA

9,30 UDALEKU IREKIAK

OHoko 3.,4. eta 5. mailak

✓ Plaza Handian

Antolatzailea: Atxutxiamaiika B. T.

22,15 ZINEA

“Coacción a un jurado”

9 ASTEARTEA

22,00 ZINEA

“Coacción a un jurado”

ASTEAZKENA

10,30 UDALEKU IREKIAK.

SAN FERMIN TXIKI EGUNA

✓ Plaza Handian

Antolatzailea: Atxutxiamaiika B. T.

20,00 LUR INDUSTRIALAREN
EGOERARI BURUZKO BILERA

✓ Kimetz elkartean

Antolatzailea: HB

OSTEGUNA

20,00 JOSEBA ETXEBERRIAREN
PEÑAREN BILERA

✓ Kultur Etxean

OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

P.M. Urruzuno 8an

ZineA



Coacción a un jurado

Zuzendaria: Brian Gibson.

Antzezleka: Demi Moore, Alec Baldwin, Joseph Gordon-Levitt.

Annie, ezkondegabeko ama bat da. Bitzta konplikatzen hasiko zaio gangster baten aurkako epaiketan epaimahaiko izateko deitzen dutenean. Gangsterrak epaimahaikoak manipulatzeko “El Maestro” izeneko gizon bat kontratzen dute. Elektronika eta behaketa metoduetan aditua den gizon honen laguntza mafiakoek epaimahaiko kideak hautatuko dituzte eta honela epaiketa guztia manipulatu.



MEKANOSA

Errosario 30

tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38

INEKO

NEKAZARI KOOPERATIBA



San Frantzisko 24
ELGOIBAR • Tel: 74 07 62

Itziarko industrialdea E-13
ITZIAR • Tel: 19 93 00

sake

KOPERATIBAK

ALPINA VIP 42
DESBROZAGAILUA
MOTXILA FLEXIBLEA
FLEX 42 cm.



71.365
PTA.

SOROPIL EBAKIGAILUA
730 E 900 Watt. 30 cm.



13.650
PTA.

HEGI MOZGAILUA
V-470 ELEKTRIKOA
400 Watt. 47 cm.
Ekintza bikoitza



14.600
PTA.



39.995
PTA.

ALPINA VIP 21
DESBROZAGAILUA
20 c.c.



10.675
PTA.

5.860
PTA.

SUPER COBRA
HEGAL-EBAKIGAILU
ELEKTRIKOA



119.650
PTA.

MOTOSEGADOREA
ALPEX HOBBY
AUTOPROPULTSATUA
3,5 HP 80 cm. motorea



37.350
PTA.

ALPEX 100
PRESIO HANDIKO
HIDROGARBIGAILUA
130 ATM
Pistola erregulablea
9 L. minutuko

BANATZAILE
OFIZIALAK:



EBANIS




NANI
MARQUINA




Zur ta Lur

●●●●●ALTZARIAK●●●●●



Gurea beste mundu bat da. ZATOZI!!



Olaso kalea 27 eta 54 A - ELGOIBAR 20870 - Tel./Faxa: 74 42 84